

2005 · 44. Zbk.



LEIOA MUNICIPIO
DEPARTAMENTO
URBAL DE LEIOA

www.leioa.net

leiOA


Udal aldizkaria

Nekazal eta abere azoka

104 VPO en Pinosolo

Escuela Deportiva de Gimnasia Rítmica

Leioako Eguna



HOTEL
ARTAZA
JATETXEA

Bodas, los mejores menús.
Aparcamiento gratuito.
Suite Nupcial.

Avda. de los Chopos, 12 · 48990 Getxo (Bizkaia)
Tel.: 944 912 852 · Fax: 944 912 934



Argitaratzalea/Edita:
Leioa Elizateko Udalak
Ayuntamiento de la
Anteiglesia de Leioa
Elexalde, 1
48940 Leioa · Bizkaia

Zenbaki interesgarriak:
Teléfonos de interés:

Leioako Udalak
94 400 80 00
Ayuntamiento de Leioa

Udalzaingoa
94 400 80 21
Policía Local
Erregistro Orokorra
94 400 80 20
Registro General
Ibilgailuak
94 400 80 27
Vehículos

Bulego Teknikoa
94 400 80 05/06
Oficina Técnica
Kultur Leioa
94 607 25 70

Aterpe
94 607 25 72
Información Juvenil
Udal Liburutegia
94 607 25 74
Biblioteca Municipal

Euskara Zerbitzua
94 607 25 76
Servicio Euskeria

Kultur Saila
94 607 25 78
Área de Cultura

Pinuetako Udal Bulegoa
Pinueta Kultur Aretoa
94 464 67 22
Of. Municipal de Pinueta
Aula Cultura Pinueta

Udal Euskaltegia
94 464 00 02
Euskaltegi

Udal Konserbatorioa
94 463 86 83
Conservatorio Municipal

Udal Kirolegia
94 400 80 59
Polideportivo Municipal

Gizarte Ongizatea
94 480 13 36
Bienestar Social

Zirkoa eta Txotxongiloak

“Circo y marionetas” es una exposición didáctica itinerante, caracterizada por el contacto directo de su creador Corrado Masacci con el público a través de visitas guiadas. La muestra permanecerá del 28 de noviembre de 2005 hasta el 5 de enero de 2006 en KL.

“Zirkoa eta txotxongiloak” izenburuko erakusketa ikusteko aukera izango da Kultur Leioaren erakusketan arretoan, 2005eko azaroaren 28tik 2006ko urtarrilaren 5era. “Zirkoa eta Txotxongiloak” erakusketa didáctico eta ibiltaria da; gainera, visita gidatuei esker, harreman zuzenean dira Euskadín luzez bizi den Corrado Masacci egile eta bildumagile italiarra eta ikusleak.

La muestra hace un recorrido sobre los orígenes del circo el caballo, el payaso y los personajes variados del espectáculo circense

Zirkoa giza izaera eta unibertsala du, barrea, mirespna eta larritasuna bezelako sentimenduak sortzen baititu mundu zabalean. Txotxongiloen ereduak gizaki baten anatomia, proporción, estética, antzerteza, muga eta gainditzearekin zerikusia du. Txotxongiloen hobetze-nahia zirkotik datorkio, “oraindik zailago” horretatik

Zirkoa dibertsio hutsa da eta erakusketa honen bidez zirkoren plazer estetikoa isladatu nahi izan du egileak, zirrikitu bat utziaz imajinazioari.

Batez ere, visita guida-tuak Lehen eta Haur Hezkuntzaren ikasle-entzat eta ikastetxe eta ikastolentzat zuzenduta dago eta haurrekin harreman zuzena lortzea dute helburu. Erakusketaren edukia azaltzeaz gain, Corrado Masaccik istorioak kontatzen ditu eta txotxongiloekin jolasten du ikuskizun polita eskainiz, haurrek aktiboki parte hartzen dutelarik.

Txotxongiloak lanean ari dira, ikutu daitezke eta publikoak panpinen taularatzean parte hartzeko aukera du, haien artean harreman pertsonala eta bizia egokituz.

Erakusketaren ibilbideari dagokionez, bisitariek zirkoen, zaldiaren, pailazoaren eta bere aurretoikoen, zirkoen pertsonaia desberdinaren, Titiri-circusen, Liliput-circusen, Fantastic-circusen, tximinoen eta igelen jatorria ezagutuko dituzte.

Erakusketa bisitatzeko ordutegia hauxe da: astelehenetik ostiralerar arte, 10etatik 14etara eta 17etatik 20etara, larunbatetan 17etatik 20etara arte eta igandetan 11etatik 14etara arte. Jaiegunetan itxita egongo da. Bestalde, ikastetxe eta ikastolen eta edozein haur talde edo elkarteenzako bisita gidatua astelehenetik ostiralerar arte, 10etatik 14etara arte izango dira. ■



25 de noviembre, día internacional contra la violencia de género

Azaroaren 25ean egingo den Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunerako, Udalak zenbait ekitaldi antolatu ditu Leioako herritarra emakumeek jasaten duten etxeeko tratu txarrei buruz informatzeko eta sentikortzeko.

Desde el Área de la Mujer del Ayuntamiento de Leioa se viene trabajando en la materia con distintas iniciativas dirigidas a un amplio núme-

ro de leioaztarras. Los cursos de prevención de violencia de género dirigido a jóvenes adolescentes, y los cursos formativos sobre la nueva ley de protección integral

A lo largo de este ultimo año, el Área de la Mujer del Ayuntamiento de Leioa ha llevado a cabo una serie de acciones:

- ▶ Concentraciones de denuncia durante todo el año.
- ▶ Adhesión campaña internacional de LAZOS BLANCOS.
- ▶ Cursos formativos ley violencia de género.
- ▶ Cursos prevención violencia para adolescentes.
- ▶ Charlas-conferencias formativas.
- ▶ Repartición dípticos informativos.
- ▶ Aprobación y difusión del manifiesto institucional contra la violencia de género.

24 de Noviembre

Conferencia: "Maltrato físico-psicológico: rompe las cadenas "

PONENTE: Estibaliz Azurmendi

HORA: 18:30hr

LUGAR : Kultur Leioa - Sala de Conferencias



25 de noviembre

Día Internacional contra la Violencia de Género
12:00hr concentración en el Boulevard
Reparto de dípticos informativos
Adhesión a la campaña internacional de lazos blancos

contra la violencia de género y medidas protectoras para agentes de policía local y técnicos de los servicios sociales de base, son algunas de las acciones formativas cursadas.

En esta línea, y con motivo del Día Internacional contra la Violencia de Género, el pasado 14 de noviembre, la Asociación Nuevos Horizontes, ofreció una conferencia, "Ser mujer en Guatemala", impartida por Lilian Wug, al tiempo que se van a realizar una serie de iniciativas dirigidas a informar sobre qué hacer en caso de maltrato doméstico y animarles a que den pasos para salir de esa situación.

El Ayuntamiento de Leioa, consciente de que la Administración Local juega un papel esencial en la prevención y eliminación de la violencia de género, se adhiere el próximo día 25 a la campaña internacional de lazos blancos, además de distribuir carteles y dípticos informativos para saber donde acudir en caso de sufrir situaciones de maltrato. El consistorial leioaztarra anima a todo los ciudadanos y ciudadanas a participar en la concentración en el boulevard a las 12 del mediodía . ■

La violinista Sandra Stanculescu, Beca “Dow Chemical 2005”

Aurtengo “Dow Chemical” beka irabazi duen Sandra Stanculescu 14 urteko violin-jole bilbotarrak entzunaldi bat eskainiko du Kultur Leioako auditoriunean, azaroaren 24an.

La violinista Sandra Stanculescu Stere, galardonada con la beca “Dow Chemical Ibérica 2005” que concede anualmente la empresa del mismo nombre, ofrecerá un concierto en el auditorio del Kultur Leioa el próximo 24 de noviembre. El programa que interpretará la violinista de 14 años acompañada de la pianista Izaskun Barturen, incluye las obras “La Folia”, de Corelli, y “Moto Perpetuo”, de Novak.

Stanculescu, nacida en Bilbao el 5 de Septiembre de 1991 en el seno de una familia con tradición musical, estudia actualmente tercer curso de Grado Medio en el centro leioztarra. En su currículo destacan los premios ganados en los concursos de jóvenes intérpretes de Bilbao y Oporto. La joven violinista también ha sido solista en numerosos conciertos con la orquesta “Euro Camerata” en giras por Centroeuropa.

Stanculescuk Bilboko eta Oportoko gazte interpretatzaileen lehiaketen lehen saria lortu du

La audición de Stanculescu se enmarca en el acto de entrega de esta prestigiosa beca que se concede a un alumno que inicie el segundo Ciclo del Grado Medio LOGSE en el Conservatorio Municipal de Música de Leioa. Para poder optar

Programa Concierto Beca Dow Chemical

1ª Parte

Obertura de “El Barbero de Sevilla”	G. Rossini
Farruca de “El sombrero de tres picos”	M. De Falla
Liebes leid	F. Kreisler
Tritsch-Tratsch Polka	J. Strauss

2ª Parte

Moon river	H. Mancini
Jazz Legato	L. Anderson
The syncopated clock	L. Anderson
The best of Beatles	J. Lennon/P. McCartney
Sleigh ride	L. Anderson

Entrada al concierto 1 € en Kultur Leioa



a ella es necesario haber superado el último curso del primer Ciclo en la convocatoria de junio con una calificación mínima de 8 en su instrumento principal. Los aspirantes a esta ayuda económica, que sirve de impulso para profundizar en el aprendizaje musical, realizan una prueba para acreditar sus aptitudes y conocimientos en la utilización de un instrumento. Dicha prueba versa sobre dos obras de estilos diferentes elegidos por el propio alumno y se valora la variedad de estilos y la fidelidad a la partitura presentada. Por otro lado, la asignación de puntos por méritos se efectúa considerando el historial académico y la edad del aspirante, teniendo mayor valor la menor edad.

Tras la entrega de la Beca Dow Chemical 2005 a Sandra Stanculescu, la Jóven Orquesta de Leioa ofrecerá un concierto bajo la dirección de Margarita Lorenzo de Reizabal. ■

Programación Kultur Leioa

Musika/Música

Lunfardo

Eguna: **Abenduak 2 Diciembre
Ostirala/Viernes**
Ordua: **20:30 h.**
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **6 euro**

Lunfardok Argentina erdi-erditik dakar tangoa. Alonso irakasleak sortu eta zuzendutako ganbera-taldea, ibilbide profesional bikaina duten musikariekin osatuta.

Egitura hori dantzari bikote batek apaintzen du, euren koreografiekin ikuskizunak Buenos Airesera garamatzala, musikari, abeslari eta dantzariekin euren sentimendua adierazten dituzten lekura.

Lunfardo trae el Tango desde el corazón de Argentina. Un grupo de cámara creado y dirigido por el maestro Alonso, y formado por músicos de una notable trayectoria profesional.

El entramado lo adornan una pareja de bailarines que con sus coreografías hacen que el espectáculo nos traslade al centro de Buenos Aires, donde los músicos, cantores y bailarines expresan su sentir. ■



Benito Lertxundi

Benito Lertxundi Zuzenean

Eguna: **Abenduak 17 Diciembre
Larunbata/Sábado**
Ordua: **20:30 h.**
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **12 euro**

Benito Lertxundi Euskal Herriko musikaren historiaren atala da; berarekin sortu, definitu eta sendotu zen. 40 urtean euskal kulturako era-gile guztien errespetua irabazi du, guztiak memoria osatzen duten irudiak gogorarazten dizki-guten abesti eta sentimendua helaraziz. Soinu-momentu horiek, bere musika pertsona askoren soinu-banda izatea eragin dute, hazten dabilen herrialde baten funtsezko momentuen soinu-banda.

Benito Lertxundi forma parte de la historia musical del País Vasco; de su arranque, de su definición y su consolidación. En 40 años se ha ganado el respeto de todos los agentes de la cultura vasca con canciones y sentimientos que han evocado imágenes que forman parte de nuestra memoria colectiva. Momentos sonoros que han configurado su música como la banda sonora de muchas personas, como la banda sonora de momentos vitales para un país en crecimiento. ■

Antzerkia/Theatro

Nasdrovia Chejov

Una comedia amable en cinco cuentos de:

¡Nasdrovia Chejov!

Vaiven Producciones

Eguna: **Abenduak 16 Diciembre
Ostirala/Viernes**

Ordua: **20:30 h.**

Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**

Sarrera: **10 euro**

Antzerkiko pertsonontzat ohore handia da omenaldi txikia egitea egile handi honi, duela gutxi bil zeneko mendeurrenara bete dela.

Bere umore-unibertsoan murgildu eta primeran pasatuko dugu dramaturgiatik hasi eta zuzendaritzara bitartean jakituria eta trebetasunetze lotutako perla txikien aukerarekin, berebiziko aktore-talde batek antzeztuta.

Es para las gentes del Teatro, todo un honor poder brindar un pequeño homenaje a este gran autor recién cumplido el centenario de su muerte.

Nos sumergiremos en su universo humorístico y disfrutaremos de la selección de las pequeñas perlas engarzadas con sabiduría y acierto desde la dramaturgia y dirección, y lucidas por un equipo de brillantes actores. ■

Información y venta de entradas en:

Kultur Leioa ,

José Ramón Aketxe, 11

Tel.: 94 607 25 70

En esta ocasión, y continuando con el informe realizado por el Área de Programación y Difusión Cultural tras un año de KL, os hablaremos de las salas de ensayo y del servicio wi-fi.

Salas de ensayo

Kultur Leioa dispone de dos salas de ensayo a las que se les puede dar varios usos. Una de ellas está completamente equipada para ensayos de grupos de música y la otra está adecuada para grupos de danza, teatro, corales etc. Desde el mes de mayo, más de una decena de grupos se han acercado a interesarse por los horarios y bonos de utilización.

Además del uso por parte de numerosos grupos locales, Aterpe los ha utilizado para impartir cursos monográficos de percusión y sexualidad. ■

Información y servicio wi-fi

En las dos plantas de la biblioteca existe una "zona i" para acceso a internet y consulta de catálogos bibliográficos y son muchos los usuarios del KZgunea.

Para facilitar la conexión a Internet sin cables y desde el mes de febrero Kultur Leioa y las plazas adyacentes son un espacio wifi. Hemos puesto a disposición de los usuarios de forma gratuita 10 ordenadores portátiles y bonos de conexión. Hasta ahora hemos ofrecido 1.119 horas de conexión gratuita y 227 préstamos de portátiles. ■

Ipuin kontaketak 2005

Leioako Udal Liburutegiak 2005eko Kontu kontari antolatu du, txikien artean irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin. Egunokin Ama Mesedetakoa, Txomin Aresti eta San Bartolome ikastetxeetako ikasleak ari dira gozatzen ipuin fantasia, literatura eta hitzak.

- **Txomin Aresti 1.** azaroak 29, 10.30etan
- **Txomin Aresti 2.** abenduak 13, 10.30etan
- **San Bartolome 1. eta 2.** abenduak 15, 10.30etan
- **GUZTIENTZAT** abenduak 27, 11.00etan
(kopuru mugatua = 40)
- **Lekua:** Kultur Leioa Liburutegia

18 de diciembre, XVIII Feria agrícola y ganadera

Leioako Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka abenduaren 18an, igandean, ospatuko da, eta 80 bat ekoizle bilduko ditu José Ramón Aketxe plazan eta 60 animalia inguru bulebarrean. Errekalde plazan artzain-txakurren erakusketa ikusteko aukera egongo da.

Cerca de 80 productores, divididos en 120 puestos, y 60 animales, tomarán parte en la XVIII Feria Agrícola y Ganadera de Leioa, que tendrá lugar el domingo 18 de diciembre. Dentro de la exposición agrícola, el público podrá degustar y vender patés, embutidos, pan y pasteles, miel y derivados, hortalizas, flores, txakoli, sidra y queso, entre otros productos, en la plaza José Ramón Aketxe, en donde también se instalará la asociación micológica Zazpi. Asimismo, el boulevard acogerá una muestra de herramientas de labranza y diferentes animales como, por ejemplo, va-

cas, bueyes, cabras, caballos, ponis, burros, un cerdo autóctono y sus crías y ciervos

Txapelketan txalatortaren dastaketa egongo da

Las principales novedades se llevarán a cabo en la plaza Errekalde con una serie de actividades especiales. En concreto, se esquilarán varias ovejas en vivo y se realizará una muestra de perros pastor. También está previsto un taller para aprender a elaborar el talo y para amenizar la feria, los levantadores de piedras del grupo Kirol Zaleak de Leioa harán una exhibición. Otra de las novedades será la degustación de txalatorta, una especie de hamburguesa que se elabora con carne de ternera.

Al igual que en la pasada edición, se celebrará el VII Concurso “Ayuntamiento de Leioa” de Queso con Denominación de Origen Idiazabal para productores vizcainos. La entrega de premios se realizará a las 13,30 horas. El ganador recibirá 300 euros, el segundo clasificado, 210 euros, y el tercero, 120 euros. Los tres primeros tendrán, además, un trofeo.

Edifizio honetan omenaldia egingo zaio herriko nekazari gazte batia

Por otro lado, la feria rendirá un homenaje, por primera vez, a un agricultor y/o ganadero del municipio y, posteriormente, habrá un recital de bertsolaris, a partir de las 14,00 horas. A lo largo de toda la mañana, los niños podrán disfrutar con una serie de actividades infantiles en este certamen leioaztarra, uno de los de mayor prestigio en Bizkaia, que dará comienzo a las 10,00 horas y su finalización está prevista para las 15,00 horas. ■





para VENDER o COMPRAR su vivienda

seguridad • solvencia • profesionalidad

Dr. Luis Bilbao Libano 8, bajo • Telf.: 94 400 45 00

www.donpisoleioa.com

Credit Services  **902 020 763**

MÁS DE 400 OFICINAS A SU SERVICIO EN TODA ESPAÑA

RED EN FRANQUICIA

PLANÚNICO

**REUNIFICA TODAS TUS
DEUDAS**

SIN PLANÚNICO



Selectivamente la mejor financiación de entre todas las entidades financieras para empresas y particulares. Especialistas en casos difíciles.

Plaza José Ramón Aketxe, 3 (Local Comercial)

48940 Leioa (BIZKAIA)

leioa1@creditcb.com • www.creditcb.com/leioa1

Miembros autorizados a la Asociación Nacional de Establecimientos Financieros de Crédito. (ASNEF)

¿VES LA DIFERENCIA?



- DEPOSITAR muebles, colchones, alfombras, electrodomésticos, restos de obras y enseres de cualquier otro tipo junto a los contenedores de basura está PROHIBIDO.
- El incumplimiento de esta norma está sancionado con MULTA DE 450 EUROS.
- Existen otras maneras de deshacerte de tus enseres.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
IDALA DE LEIOA



- Para el depósito gratuito de todos estos residuos tienes a tu disposición:
 - Garbigune de La Avanzada (94 463 56 91)
 - Garbigune Fadura (652 77 45 26)
Lunes a viernes: 9:00 - 13:00 h.
15:00 - 17:30 h.
 - Sábados: 9:00 - 13:30 h.
- Servicio de recogida a domicilio, dos días a la semana previa cita concertada en el teléfono: 900 720 631

**LA DIFERENCIA
ERES TU**  **LEIOA** *garbi
eta txukun*

Gimnasia erritmikoaren udal eskola: amaigabeko harrobia

La escuela deportiva de gimnasia-rítmica de Sakoneta acoge a más de 110 niñas en su seno, lo que constituye una de las canteras más prolíficas en esta modalidad a nivel de Bizkaia.

Sakoneta polikirolde-giko kirol eskola zaharrarenetakoan dugu Gimnasia erritmikoarena. 1983an Mari Cruz Gobelak sustatutako ekimenak tinkodarrai egunotan gure herriko 5 urterik gorako nesken artean. Hain zuen ere, 110 neskato inguruk kirol modalitate honetan dihardu Sakonetako kiroldegian, Bizkaian tamaina horretako udal eskolarik ez omen da. Gainerakoek egiten ez duten bezala, Leioakoan dauden 8 urte gorako neska guztiak lehiaketetan hartzan dute parte, bakoitzaren gaitasunak kontutan hartu gabe. Begoña Fernandez entrenatzaleak dioenez, “beste eskoletan hauketak egiten dira baina hori

ez dator bat gure filosofarekin eta gure neskek esperientzia hartza nahi dugu, lehiatzen larritasunak, emozioa eta horrelakoak ezagutzeko”. Datorren urtean 2005/06 denboraldiari dagokion eskolen arteko Estatu mailako Txapelketa ziur aski Bizkaian egingo da, beraz, neskek badute bai ilusioz eta lanari ekinez prestatzeko arrazoi nagusi bat. Aurretik, Iruñan beste lehiaketa batean parte hartzeko aukera izango da.

Leioan hainbeste haur gimnasia erritmikoan izanda, lan

saioretarako bost taldetan banatzea erabaki dute, beti ere adinaren arabera. Gaztetxoen atalean (5 eta 6 urtekoak) guztira 36 neskatxek eman dute izena eta hiru hilabetetan baino ez lehenengo ariketak ikasten ohi dituzte tapizaren gainean, musikaren laguntzaz. “Gurasoak pozik azaltzen dira epe laburrean ariketak ikasi dituztela ikustean”, dio Fernándezek.

Bestalde, neska hauei zerkmugitzen die kirol honetan aritzeko azaltzerakoan, entrenatzaleak dio “adín horiekin gehienbat musikarekin dantzegitea dute gogoko eta gorputz-expresioarekin eta erritmoarekin sortzen den nahasketa horrek erakartzen die”. Hau dela eta, Leioako udal kirol eskolarik arrakas-

La leioaztarra Igone Arribas participó en los Juegos Olímpicos de Sydney en 2000



tatsuena da Igeriketa eskola-rekin batera.

Gainera, Sakonetako kirolegian gimnasia erritmikoan aritzeko ez da baldintzarik betar behar: "kirola gustokoa eta interesa izatea besterik ez dugu eskatzen, berdin dio bakoitzaren tipología". Baita berdin dio neska zein mutila izatea ere, "lau mutil dauzkagu gurean", azpimarratzen du Begoña Fernandezek.

Beraz, entrenatzale honek gure herriko haurrei kirol eskola honetan sartzeko deia luzatu nahi die "adin horietako neskaren ezaugarri fisikoak garatzeko modu aproposa delako". Etorkizunari begira, gimnasia erritmikoaren udal eskolak 19 eta 20 urteko neskentzat zuzendutako eskaaintza zabaltzeko asmoa agertu dute arduradunek.

Sakoneta Erritmiko Taldea

Kirol eskola honetan gailentzen ziren neskei jarraipena eskaaintzeako asmoz, 1985ean Sakoneta Erritmiko Taldea sortu zuen guraso talde batetik, neskatoentzat beste mailako txapelketetan federatu gisa parte hartzeako aukera emanez. Gauzak horrela, gimnasia erritmikoaren eskola talde honen harrobian bihurtu da eta elkarren arteko laguntza horren emaitzak heldu dira. Izan ere, eskolatik talderako bidea egin-dako neska batzuek goi mailako txapelketetan hartu dute parte. Adibidez, Ikea Mendi auzoan jaiotako Igone Arribasek, 17 urterekin, 2000



La principal característica de la escuela es que todas las niñas, sin excepción, compiten a partir de los 8 años de edad

urteko Sydney-ko Joko Olinpikoetan aritu zen Spainiako selekzioarekin eta Lorena Barbadillok eta Eider Mendizabalek Munduko bi Txapelketetarako deitu zituzten. Gaur egun, Andrea Cossie 15 urteko neska dugu taldearen gimnastarik aipagarriena, azken lau urtetan banakakoan aukeratu dutelako, eta Janire Alboniga 15 urtekoak brontzezko domina eskuratu zuen Cluben arteko Estatuko txapelketan azken denboraldian. Talde modura, Sakonetakoak lortu duen arrakastarik handiena 1999an izan zen, Valladoliden egindako Estatuko txapelketan, orduan txapeldun geratu baitzen taldeen modalitatean. Garaipen hori ez ezik, Sakoneta Erritmiko Taldeak Euskadiko zenbait txapelketa ere irabazi ditu bere hogei urteko ibilbide luzean.

Gaur egun, haur, junior eta gazte mailak batuz gero, ham-

bost neska federatu ditu Judith Torralba entrenatzaleak bere ardurapean. Arestian aipatu denez, udal eskolan nabarmenzen direnak taldean sartzen dira eta horretarako zenbait ezaugarri betar behar dituzte. Judithek aipatzen duenez, "elastikotasuna, koordinazioa eta oreka, giroetarako eta salto-estarako batez ere". Eskolan geratzen denez, taldean ere diziplina gakoa da. "Ikasketak eta kirola aldi berean egitea garrantzitsua da, neskek hori badakite eta orain arte ondo egiten dute", entrenatzalearen esanetan. Elikagari-erregimenik ez dela egiten argitu ostean, bai Judith Torralbak bai Begoña Fernandezek bat datozen esaterakoan "Udalak edozertarako eskua luzatu digu beti, kirol instalazioak erabiltseko arazorik ez dugu eta gimnasia erritmikoan aritzeko azpiegitura ona dugu". Polikiroldegiko arduradunak ere pozik daude haind arduragatik. ■

104 VPO junto a Mercedarias

Leioako udalak onetsi egin du Pinosolo Arloan babes ofizialeko 104 etxebizitzak (BOE) eraikitze proiektua. 104 etxebizitzak eraikin independente bitan banatuko dira, plaza txiki baten inguruan, eta Mercedarias ikastetxearen alboan egongo dira.

El Ayuntamiento de Leioa ha aprobado el proyecto de construcción de 104 Viviendas de Protección Oficial (VPO) en el Área de Pinosolo. Las 104 viviendas se distribuirán en dos edificios independientes entorno a una plazoleta y se ubicarán junto al colegio Mercedarias, en el solar donde hasta ahora se venían instalando las txoznas en fiestas de San Juan. Los edificios, además de las

104 VPO, también albergarán sus correspondientes locales comerciales, así como garajes y trasteros.

Esta promoción de vivienda protegida trae causa del Convenio firmado entre el Ayuntamiento de Leioa y la empresa Viviendas de Vizcaya, S.A., por el que ambas entidades acordaron elevar en este Área el

Infografía orientativa de los dos bloques de VPO previstos





**Mertzedarietako
104 babes
ofizialeko
etxebizitzek
500eraino
igoarazten dute
Leioako Udalaren
kudeaketaz
sustatutako
BOEn kopurua,
eta horiei, Eusko
Jaurlaritzak
Lamiako-
Txopoetan
amaituko dituen
beste 170ak
erantsi behar
zaizkie**

porcentaje de VPO a construir al 30% del total de las viviendas previstas, superior al que la Ley fija para las áreas de suelo urbano (20%).

**Datorren 2006an egin
litezkeen Babes Ofizialeko
Etxebizitzen (BOE)
zozketetan parte hartzeaz
interesatuta dauden
pertsonek Etxebiden izen
eman behar dute 2005eko
azaroaren 30a baino lehen,
edo lehendik izen emanda
egon.**

Una vez aprobado el proyecto por parte del Ayuntamiento, únicamente resta obtener la cédula de calificación provisional por parte del Departamento de Vivienda del Gobierno vasco al objeto de que se pueda iniciar el proceso que permita poder sortear las viviendas a

través del servicio de Etxebide entre aquellas personas que cumplan las condiciones habituales, cuales son los ingresos legalmente establecidos, carencia de vivienda en propiedad y empadronamiento en el municipio de Leioa.

En este sentido, una vez Etxebide realice todo el proceso habitual para determinar la lista de personas con derecho a participar en el sorteo, para lo cual las personas interesadas deberán figurar inscritas en Etxebide con carácter general antes del 30 de noviembre del presente año, el citado sorteo, así como el inicio de las obras se llevarán a cabo en 2006.

Esta nueva promoción de VPO eleva el número de viviendas protegidas que en los últimos seis años se han activado a través de la gestión impulsada por el Ayuntamiento de Leioa a más de 500, unas ya finalizadas y otras en construcción o con inmediata licencia, y se complementan con las 170 que el Departamento de Vivienda del Gobierno vasco culminará en Lamiako-Txopoeta. ■

A paso de peatón

El pasado mes de octubre se llevó a cabo la 1ª Marcha Ciudadana, A PASO DE PEATÓN, organizada dentro del programa de acciones del proyecto educativo Leioarako ez Hain Txikiak-Generación. Planteado como un juego, fue un paseo por el centro de Leioa incidiendo en el uso de los pasos de cebra/peatón.

Pasa den urrian, OINEZKOEN ERRITMORA Herritarren 1. Ibilaldia burutu da, Leioarako ez Hain Txikiak-Generación hezkuntza-proiektuaren ekintza egutegiaren barnean antolatu dena. Jolas batzen moduan planteaturik, Leioako erdigunetik ibilbidea egin zen, zebraideen/oinezkoentzako pasabideen erabilera azpimarratuta.

Hezkuntza-programaren gogoeta- eta laneremua Mugikortasunean oinarritzen da. Asmoa programa bat hasi eta zabaltzea da, ingurunearekin eta bertako biztanleekin iraunkorragoa den ikuspegitik eraldaketa espazioak hausnartu eta sortu nahi dituena.



Haurrek ere ibilaldian parte hartu zuten.



Se inauguró un programa que pretende reflexionar y generar espacios de transformación desde un punto de vista más sostenible con el medio y las personas que lo habitan.

Los paseantes finalizaron el recorrido en el Molino de Elexalde donde pudieron “desayunar” fruta, ofrecida por la Asoc. Comerciantes, y descansar de la Marcha a Paso de Peatón.

Oinezkoek ibilbidearen norabidea hautatu zuten, mapan baimendu eta adierazitako kaleak bakarrik erabilita, eta jolasaren arauetan jarraiki, partaideek kaleetako gune beltzak aurkitu zituzten.

Hona hemen lehenengo ekintza horren helburuak, bestek beste: ibilbidean udalerriko kaleek herritarrei oinezkoentzako segurtasun eta lehentasun parametroen barnean ibiltzea ahaldidetzen dieten ala ez konturatzea, herriari oinezkoen erritmoa ezartzea, ibilgailuen eritmoaren ordez, eta umeei herriko kaleetatik ibiltzen laguntzea, helduak haien segurtasunaren bermatzaileak eta laguntzaileak izango direla umeen jolasetan zein bilakaeran.

Ibiltarieki Elexaldeko errrotan amaitu zuten ibilbidea, eta bertan Merkatarien Elkartea eskainitako fruta “gosaltzeko” eta Oinezkoen Erritmora Ibilaldia egin ondoren atsedean hartzeko aukera izan zuten. ■

Servicios

- **FISIOTERAPIA GENERAL.**
- **RECUPERACIÓN FUNCIONAL.**
- **MASAJE:** Descontracturante, deportivo, circulatorio...
- **TRAUMATISMOS:** Esguinces, fracturas, roturas musculares...
- **DOLORES DE ESPALDA:** Ciática, lumbalgia, cervicalgia...
- **DRENAGE LINFÁTICO.**
- **QUIROMASAJE.**
- **TERMOTERAPIA.**
- **ELECTROTERAPIA.**

Tfno./Fax: **94 402 00 48**

Colaboramos:
IMQ
MAPFRE
PREVISORA BILBAINA/AZK
SEGUROS BILBAO
SANITAS
LAGUN ARO



Servicios

- Revisiones gratuitas.
- Limpieza sin cita previa.
- Financiación a medida.
- Laboratorio prótesis propio.
- IMPLANTOLOGÍA.
- ESTÉTICA DENTAL.
- PERIODONCIA.
- BLANQUEAMIENTOS.
- Prótesis fija y removible.
- Odontología General.
- Reparación inmediata de prótesis.
- URGENCIAS: 649 939 229

Tfno./Fax: **94 463 70 07**

Dr. Luis Bilbao Líbano, 7 • Entpta. B • 48940 LEIOA

- **0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.**
- **Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHtik.**
- **Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda.**
- **Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.**
- **Leioako *Ikastolen Elkarteapartaideko* ikastola bakarra.**



Deitu eta informa zaitez inolako konpromezurik gabe.

Tlf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07 Fax: 94 464 22 05

Helbidea: Artatza auzoa 84

Helbide elektronikoa: leioa@ikastola.net

Informazioa gehiago gure WEB orrian:

www.ikastola.net, Ikastola zertan den atalean.

Leioako eta Krakoviako **gazteen elkartruke**

Jóvenes de Leioa y de la ciudad polaca de Cracovia tomaron parte en un intercambio cultural promovido por los Ayuntamientos de ambas localidades, los pasados meses de septiembre y octubre, con el fin de conocer las respectivas culturas, costumbres e historia, además de estrechar lazos de amistad entre ambos grupos.

Leioako eta Poloniako Krakovia hiriko zenbait gaztek elkartruke kulturala egin zuten joan den irailean eta urrian, bi herriko udalek bultzatuta. Emozioak, egoera berriak, sortutako adiskidetasuna... ahaztu ezineko esperientzia bizi izan zuten bai batzuek eta bai besteek elkarrekin.

Elkartrukeak denek gogokoa dituzte, batez ere adin eta zale berdineko lagunen artean bada.

Irailaren 17an, elkar ezagutu berri ziren gure herriko 13 gaztek bederatziz egunetarako Krakoviara jo zuten bertoko ohiturak, histo-



ria eta kultura ezagutzeko asmoz. “Aireportura iritsi ginenean berehala somatu genuen 23 poloniar gazte irrikitan zeudela gu ezagutzen”, aipatu digu elkartrukean parte hartu zuen leioaztar batek.

Hurrengo egunean bakoitza bere familiarekin egun pasa joan zen eta gauean guztiok elkartu ziren ongi etorri jai bat egiteko asmoz. Hurrengo egunetan, Krakovia hiriko bitxikeriak ezagutu zitzuten, hala nola, Judutar auzoa, Poloniako antzineko erregeen Wawel gaztelua, alde zaharra eta enparantza nagusia. Baita Wieliczka-ren gatz-meatzeak ere. “La lista de Schindler” filmea ikusteko aukera izan zuten “bertan filmatua izan zelako eta hurrengo eguneko txangorako lagungarria suertatuko zitzraigulako, alegia, Auschwitz-Birkenau kontzentrazio zelaietara joan ginelako. Hitzekin deskriba ezina izan zen bidaia hura”, leioaztarraren esanetan.

Txangoek ere atal garrantzitsua izan zuten elkartruke honetan. Izan ere, gure gazteak Tatrako mendi aipagarrietan ibili ziren. “Pirinioekin antzekotasun handia daukate nahiz eta desberdinak izan”, aipatzen dutenez. Goiz oso bat eman zuten menditik paseatzen eta arratsalderako prestatua zegoen laguntasunaren suaren inguruan bertako janaria, musikaz eta dantzez goxatu ahal izan zuten. “Oscypek” bertoko ohiko gazta ere dastatu ahal izan zuten. “Guitariko asko mendietako dantzak ikastera animatu ginen. Jai hau agur ofizial hunkigarria izan zen, nahiz eta gero hurrengo egunean gazteok gure artean beste bat egin genuen goizaldeko 5etan hegazkina hartzeko”.

Eta hortik aurrera hasi zen elkartrukearen bigarren zatiko prestakuntza. Izan ere, urriaren 16an berriro besarkadekin agurtu ziren elkar, baina oraingoan, Leioan.

“Hemos querido conocer el estilo de vida, costumbres y tradiciones del pueblo vasco, que para muchos extranjeros sigue siendo misterioso y desconocido”, aseguran los jóvenes polacos.



Hamabi egunetako egonaldian, Poloniako gazteek Euskal Herriko kultura, folklore eta arte “aberatsa eta bitxia” ezagutzeko aukera izan zuten. Haientzat zuzenduta, alde batetik, Julio Medem zuzendariaaren “Euskal Pilot” pelikula eskaini zen euskal gatazka gertutik ezagutzeko eta bestetik, Euskal Herriko geografia eta historiaren daturik importanteenak bereganatu zituzten Leioako gazteek prestatutako tailer batzuen bitartez. “Asko ikasi genuen eta gaiak aurkeztek modu dibertigarriari esker, barre asko egin genuen”, adierazi dute Katarzyna Kuzniarrek eta Justyna Matogak. Bitxikeri bezala, askok gustoko zuen txapela erosi zutela aipatzeko da. Euskal musikaren soinuak ere entzun zituzten eta berre ongietorriaren ekitaldian dantzatutako auresskuak “harritura utzi gintuen”, diote.

Hala ere, haien iritziz, euskal joko eta kirolak izan ziren ekintzarik erakargarrienak. “Denetan parte hartu genuen pasio handiz eta alaitasunez”, adierazi dute.

Ibilaldien artean, Bilboko Guggenheim Museora eta Donostia Txillida-Lekura egin-

dakoak goraipatu dituzte. Gainera, Artatzako Jauregia, Bizkaiko Zubia, Uribe Kostaren zati bat, Urdaibai, Gernika eta Gaztelugatxeko Doniene (“leku magikoa”, beraien esanetan) ezagutu zituzten. Euskal gastronomiarentzat ere hitz onak izan dituzte: “Polonian saltsa beltzezko txipiroiak, olagarroak edota muskuiluak ez ditugu jaten eta benetan apartekoak izan dira. Denetarik jan dugu”. Haien iritziz, “leku bat ezagutzeko modurik onena, norbera bere kabuz kalez kale ibiltzea da monumentoak eta oroipenak bilatuz. Horretarako denbora izan genuen eta, adibidez, Donostia eta bere hondartzak lurratu gintuzten”. Baina elkartrukeak Euskal Herriaren bizitza estiloa, ohiturak eta tradizioak ezagutzea zuen helburu. “Atzerritar askorentzat herri hau ezezaguna da eta gu ahaztu ezineko oroipenak gordeta ditugu”, komentatu dute. Azkenik, poloniarrek haien etxeetan jaso zituzten euskal sendien abegi ona eskertu nahi izan dute. Elkartruke honetan adiskidetasun handia sortu da bi taldeen artean eta kultura ezberdinak izan arren, lagun berriak ezagutzeko oztopoak ez daudela konturatzen dira, tolerantziari eta errespetoari eutsiz. ■

Encuentro con la ONG “Casa abierta”

**Joan den urrian Leioako Udalak
“Leioa Solidarioa” egunean
bildutako dirua eman zion
“Casa abierta” GKEari.**

El pasado mes de octubre tuvo lugar un encuentro entre la ONG “Casa Abierta” de Santo Domingo Oeste y el Ayuntamiento de Leioa, un acto en el que el consistorio leioaztarra, entregó a “Casa Abierta” los fondos recaudados el 25 de junio en la jornada “Leioa Solidarioa”.

En el año 2001, y dentro del Programa de Prevención de la Drogadicción denominado “*La aventura de la vida*” promovido por EDEX, se llevó a cabo el hermanamiento entre la Escuela Pública de Lamiako y la Escuela Pedro Brand de la República Dominicana. Desde entonces, se han desarrollado diversas

iniciativas en una doble vertiente: la educación en los valores solidarios y la colaboración económica con esta escuela.

Este año 2005 se dio un paso más introduciendo la solidaridad en la programación festiva de San Juan. Para ello, día 25 de junio se puso en marcha una actividad cultural, festiva y solidaria denominada LEIOA SOLIDARIOA con el objetivo de obtener fondos para este proyecto en la República Dominicana.

En un emotivo encuentro celebrado en KL, el Alcalde de Leioa, entregó la recaudación de LEIOA SOLIDARIOA al responsable de la ONG “Casa Abierta”, Juan Raddames, quien tuvo palabras de agradecimiento al pueblo de Leioa, y expresó su deseo de seguir trabajando conjuntamente y en colaboración con el Ayuntamiento.

En el acto también estuvieron presentes el Alcalde-Sindico de Santo Domingo Oeste, Francisco Peña Tavares y la Responsable de Cooperación Internacional, Emerita Peña, que se encontraban en nuestro país en visita institucional invitados por EUDEL

Una vez más, el consistorio leioaztarra quiere agradecer la colaboración y el gran esfuerzo realizado por empresas, comercios, asociaciones u otros colectivos, y particulares que hicieron posible el objetivo de LEIOA SOLIDARIOA: la recaudación de fondos que se destinarán íntegramente a la Proyecto Solidario de la Republica Dominicana. ■



Encuentro del Ayuntamiento de Leioa y la ONG Casa Abierta en KL.

CLÍNICA DENTAL

Dra. L. Sánchez-Ruiz

Máster Universitario en Odontología y Odontopediatría Facial



Ortodoncia infantil y adultos

Ortodoncia estética

Ortodoncia invisible

I.M.Q. - AEGON

Odontología infantil

Implantes dentales

Tratamiento de encías

Blanqueamientos-Estética dental

Edificio IKEA ETXEA · Dptos.: 112-125

Estartetxe nº 5 · 48940 LEIOA · Tel.: 944 316 746

RPS: 58/03

PÄSTELERIA GÄLDÄRETXE GOZODENDA

PASTELERÍA · BOMBONERÍA · PANADERÍA

CONFITERÍA · HELADOS ARTESANOS · CHARCUTERÍA
PASTA FRESCA ITALIANA · FRUTOS SECOS

ANDRA MARI

Maidagan, 35
944 911 125

AREETA

Mayor, 17
944 647 729

LEIOA

Sabino Arana, 67
944 644 058

ALGORTA

Telletxe, 11
944 603 214

Leioako eguna

El pasado día 3 de noviembre se celebraron 479 años de la fundación de la Anteiglesia de Leioa, en el que la Cultura y el Deporte fueron protagonistas

Juan den azaroaren 3an Leioaren Eguna ospatu zen Artatza jauregian. Leioako Elizatea sortu zenean 479 urte bete direlarik, Leioaren eta herriaren loka-riak sendotu asmo zituen ospakizun bat antolatu zen, eta horretarako, kultur eta kirol elkartea, ikastetxeak, IGEak, auzo-elkartea, auzo-eta-ko kultur ikasgelak, en-presak... azken batez, Leioan eta Leioarentzat behar egiten

duten guztiak elkartzeko bil-gune bat sortu zuen.

Ospakizun hori baliatuz, Leioako Udalak esker on be-rezia erakutsi gura izan zien, gure herriko Kirolaren eta Kulturaren alde egindako la-nagatik nabarmendu diren pertsonei

Kirol esparruan Txus Gomez eta Juan Ramon Rodriguez sariu zituen, hogei urtean Leioan saski-baloiaren kirola

sustatzen ipini izan duten jo-ran sutsuagatik.

Leioan saski-baloiak lortu duen sustraitzeak zerikusi handia du LEIOA SASKI-BALOI TALDEArekin, eta Klub hori, funtsean, aipatu kirolari nabarmen bi horien kemenaren, lanaren eta ilu-sioaren emaitza da.

Ospakizunean Lamiako, Pinueta, San Bartolome eta Txorierriko Kultur Aretoek ere ondo merezitako omen-aldia jaso zuten. Kultur areto-ek auzoetan garatzen duten lana funtsezko eta oinarriz-ko da, erdigunetik asago dauden hirigune horietan kultura dinamizatzeko eta gi-zarte-kohesioa lortzeko zere-ginean.

Lamiakoko Lamina Kultur Taldeak, Pinuetako Irri-farrezek, San Bartolomeko Auzotarrokek eta Txorierriko Purrikiltxok beste inork bai-no hobeto ezagutzen dituzte auzo bakoitzeko biztanleen interesak eta gustuak; hortaz, urterik urte saiatzen dira jar-duerak, ikastaroak eta irte-naldiak eskaintzen, horretara auzotarren eskariei erantzut-en joateko.

Ekitaldia “b vocal” seikoteak girotu zuen. Talde horrek mota guztiako jendearen-gana heltzeko formula ezin egokiagoa aurkitu du a cape-lla musika, humorea eta an-terzkeria bateratuz. ■



Txus Gómez y Juan Ramón Rodríguez galardonados por su dedicación durante veinte años al baloncesto en Leioa; y las Aulas de Cultura de Lamiako, Pinueta, San Bartolomé y Txorierri, merecidamente homenajeadas en el Día de Leioa.



El Área de Cultura del Ayuntamiento de Leioa

desea recuperar, conservar y difundir el **Patrimonio Histórico-Fotográfico** de nuestro pueblo.

Para que este Archivo de Imágenes de Leioa siga creciente, **necesitamos tu colaboración.**

» **¿Qué interesa?**

¡¡TODO!!... fotos familiares, deportivas, festivas, industriales, urbanísticas, sociales, de eventos, personalidades, paisajes, grabaciones, cuadros, recortes de periódico, ... cuanto más antiguos, mejor.

» **¿Cómo puedo colaborar?**

CORRE LA VOZ, HAZ UN ESFUERZO Y BUSCA EN TUS CAJONES, ÁLBUMES Y CAJAS DE ZAPATOS OLVIDADAS ESAS IMÁGENES QUE FORMAN PARTE DE NUESTRA HISTORIA Y DÉJANOS COMPARTIRLAS CONTIGO.

» **¿Dónde hay que llevarlas?**

Dirígete a las Oficinas del Área de Cultura:
Kultur Leioa

Jose Ramon Aketxe Plaza, 11-4^a planta
Tel. 946072578/Fax. 946072579
kultur@leioa.net

Si es posible, **añade la fecha de la fotografía y lo que representa** (lugar, nombre, etc)
Este material será escaneado y entregado en el plazo de una semana, en el mismo estado de conservación en el que se recogieron.
El escaneo tiene el mismo proceso que si fueran photocopies. ¡No te preocupes!.
No se deteriora nada.

» **¿Y en el caso de que no pueda traerlo?**

Avisanos y una persona irá a recogerlo. Y si las fotos son muy grandes o se encuentran pegadas en una pared, concertaremos una cita contigo y sacaremos una fotografía al instante.

GRACIAS POR TU COLABORACIÓN.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

La música de Leioa

El pasado mes de octubre, la música fue la gran protagonista en nuestro pueblo. La soprano Ainhoa Arteta ofreció un recital en la Iglesia de San Juan Bautista de Leioa, se celebró el 1º Premio Cesar Uceda "Leioa Jóvenes Intérpretes", y las formaciones musicales de Leioa: Leioa Kantika Korala, la Coral San Juan Bautista de Leioa, la Joven Orquesta de Leioa, interpretaron la obra "Mass of the children" en el Palacio Euskalduna.

Dagoeneko badira dira urtetxo batzuk Leioa musikaren aldeko apustu ezbairik bakoa egiten ari dena. Euskadiren musika-tradizioaren barruan gure herriak iraganean zenbait musika-agerrera izan ditu, abesbatza-musikaren arloan bereziki, eta berrikiago hautu garbia egin du musika-hezkuntzaren alde. Hori gauzatzeko, laurogeiko hamarkadaren hasieran Leioako Udal Kontserbatorioa eta Musika Eskola sortu zen, aurren bere hogeita bosgarren urteurrena ospatuko duelarik, hain zuzen.

Sortu zen unetik Zentro hura kopuruan, esanguratsuak edo ez izan daitezkeen zenbakietan, hazi egin ez ezik, kalitatean eta proiekzioan ere

heldurik dago. Asko dira bertako ikasgelak eta instalazioak bete eta gozatu dituztenak. Gero eta irakasgai eta tresna gehiago erantsiaz batera, gure ingurunean ospetsu egin den irakasle-talde sendo bat egituratu da.

Joan den urrian musika izan zen protagonista nagusia gure herrian. Ainhoa Arteta sopranoak kantaldi bat eskaini zuen Leioako San Joan Bataiatzailearen elizan, pianoan, Rubén Fernandez zuela lagun eta Leioa Kantika Koralaren lankidetzarekin.

Beste alde batetik, eta Leioako Udal Kontserbatorioko musika-irakasle izan zen Cesar Ucedaren gomutagarri eta esker ongi-sa, I. Cesar Uceda "Leioa Interpret Gazteak" Saria abiarazi zen

Lehiaketan Musika Kontserbatorioren batean Erdi Mailako edozein kurtsotan matrikulatutako ikasle guztiek parte hartu zuten. Epaimahaiaik bere poza adierazi zuen lehenengo lehiaketa honetan 17 partehartzaileek erakutsitako maila handiagatik. Saritua honako hauek izan ziren:

1. Saria: Xabier Casán Abia (Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioko Erdi Mailako Pianoko 6. kurtsoko ikaslea).

2. Saria: Karolina Andrzejczak Skrzypczak (Leioako Udal Kontserbatorioko Erdi Mailako biolineko 6. kurtsoko ikaslea).

Leioa, está realizando un apuesta clara por la música, y singularmente, entre los más jóvenes.

La soprano Ainhoa Arteta en la Iglesia de San Juan Bautista de Leioa.



Leioa Kantika Korala, la Coral San Juan Bautista de Leioa, la Joven Orquesta de Leioa, la soprano Svetla Krasteva y el barítono Jesús M^a García Aréjuela, todos ellos dirigidos por Margarita Lorenzo de Reizábal, interpretaron la obra "Mass of the children", en el Palacio Euskalduna.

3. Saria: Laura López Gómez (Leioako Udal Kontserbatorioko Erdi Mailako biolineko 6. kurtsoko ikaslea).

Leioak goi mailako heziketa artistikoak ditu eta egitaraua ere interes handikoa da. Horregatik, egoki ikusi zen Bilboko Euskaldunen topaketa bat ospatzea.

Joan den urriaren 23an Leioa Kantika Koralak, Leioako San Juan Bautista abesba-

Este primer certamen contó con un alto nivel demostrado por los 17 participantes



tzak, Leioako Gazte Orkestrak, Svetla Krasteva sopranoak eta Jesus M^a García Aréjuela baritonoak, guztiak Margarita Lorenzo de Reizabalen zuzendaritzapean, "Mass of the children" obra eman zuten; John Rutter konpositore garaikidearen lan hori, abesbatza misto, haur-abesbatza eta soprano eta baritono bakarlarentzat eta orkestrako dago idatzita.

Kontzertuak BIZKAIEDER 2000en babesia izan zuen; aipatu enpresa babeslea gure hiri eta komunitate garapenaren protagonista da eta bereziki konprometiturik dago Lamiakoko eta Txoperako PERRIrekin (Barne Erreforma eta Birgaitzerako Plan Berezia). BIZKAIEDERek ezin hobeto ulertu zituen elkarraldi honen zentzua eta garrantzia, eta horrexegatik, jaialdi hau gauzatzeko eman zuen funtsezko laguntza eskertu nahi diogu.

Diote musikak zentzua eta esanahia eransten dizkiola mintzoari, emozioak sortu eta gizakieng arima modulatzen duela. Musikak, zaintza barik, ondorio berdinak sortzen ditu erkidego batean. Eta, horrexegatik, Leioan musika elementu indartsu bat izan daiteke gure komunitatearen arimaren hazkunderako, eta hala ari da izaten. ■

Erakusketa

“Ni ere pertsona-Yo tambien pertsona”, exposición didáctica, organizada por KL, Aterpe Gazte Bulegoa y SOS Racismo Bizkaia, desde el próximo día 12 de diciembre hasta el 5 de enero de 2006, en ATERPE Oficina de Información Juvenil de KL.

Kll, Aterpe Gazte Bulegoak eta SOS Arrazakeria Bizkaik antolatutako erakusketa didaktiko honen asmoa da, gure gizartearren parte izan arren isildurik dauden pertsonei hitza ematea, haien berben eta jatorrizko herrialdeei buruzko informazioaren bitartez imigrazioa eragiten duten kauen gaineko gogoeta egin ahal izateko, auzokide, adiskide, lankide... gisa dituzten eskubide guztiak ezagutzeaz gain.

Erakusketa 30 panelek osatzen dute eta horietan pertsonak eta euren jatorrizko herrialdeak agertzen dira: Txina, Guatemala, Kolon-

bia, Mexiko, Ginea Bissau, Maroko, Kongo Brazzaville, India, Argentina, Senegal, Amazigh (Berbereak), Sahara, Kabo Berde eta Mundua.

Pertsona/herrialde bakoitzak panel bik osatzen dute. Batean pertsonaren argazkia eta, immigranteek euren jatorrizko herrialdea utzi eta beste batean jartzean izan ditzaketen bizipenak aipatzenten dituen esaldi bat ikusten dira. Eta beste panelean, jatorrizko herrialdearen mappa bat eta hari buruzko datu adierazgarriak aurkituko ditugu. ■

Se comunica a los extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia permanente que deberán renovar su inscripción en el padrón de habitantes, antes de que transcurran dos años desde que se registraron. En caso de no hacerlo, podría declararse la caducidad de la inscripción sin audiencia previa, causando baja en el padrón y perdiendo todos los derechos que ello implica.

Deberá personarse antes del 22 de diciembre de 2005, y al objeto de renovar expresamente por escrito **su inscripción padronal, aportando documento identificativo en rigor, -tarjeta de extranjero o pasaporte-, en:**

Dpto. de Estadística del Ayuntamiento

Bº. Etxelde, 1- Días laborables de 9:00 de 14:00 hr

Oficina descentralizada de Pinueta

C/. Lapurdi, 3- Días laborables de 9:00 a 13:00 hr

20 de diciembre, 19:00hr
INMIGRACIÓN, RACISMO
Y DERECHOS HUMANOS

13 de diciembre, 19:00hr
VIVIENDA Y JUVENTUD



ATERPE Gazte Bulegoa
2005eko abenduaren 12tik, 2006ko urtarriaren 5era
Astelehenetik ostiralera: 9:00 -14:00 / 16:30 -19:30



terra de barbares

fábrica de prendas de piel
ramón villamor



Sabino Arana, 18 • Parque Empresarial Ibarra Barri • Edificio E - Módulo E-1
Teléfono y Fax: 94 480 21 88 • 48940 Leioa • E-mail: u-13@wanadoo.es
Junto Metro de Leioa



ALSA

S E R V I C I O S

HEREDEROS DE CLAUDIO ALVAREZ SARRIA, S.L.



SERVICIOS DE LIMPIEZA:

- Viaria
- Edificios, locales y colegios (SERVICIOS CERTIFICADOS)



ALSA

S E R V I C I O S

HEREDEROS DE CLAUDIO ALVAREZ SARRIA, S.L.

SERVICIOS AL MEDIO AMBIENTE

- Venta de contenedores para:
Recogida selectiva de pilas
Recogida de tubos fluorescentes



Al servicio del Municipio de Leioa

“Mantén limpio Leioa” · “Leioa garbi euki”

C/Doctor Luis Bilbao Líbano, 10 · 2º B
48940 LEIOA (Bizkaia)

Tels.: 944 636 400 / 944 636 870
Fax: 944 800 703